



15

Euskararen sentsibilizaziorako pilula:

euskara hobetzeko aholkuak, euskarari
buruzko berriak, euskal kultura eta askoz
gehiago!

1


Baduzu zer irakurri?

Irakurtzeko liburu interesgarririk bilatzen baldin bazabiltza, eta ez baduzu nahiko zenukeen liburu hori aurkitzen, hemen duzu irtenbidea:

Hilean birritan, **Nagore Fernandez** literatura-kritikariak euskarazko liburu bati buruzko erreseina dakarkigu, Berria egunkarian eta haren webgunean.

Askotariko liburuak dira atal honetan ageri direnak: **eleberriak, poesia-liburuak, komikiak, saiakerak, etab.**

Asko eta asko euskal idazleen obrak izaten diren arren, sarritan ekartzen dizkigu atzerriko idazleek idatzi eta euskaratu diren liburuak.



Klikatu hemen, erreseinak ikusteko: [NagoreFernandez](#)

2025eko Euskaraldirako prest!

Iruñean aurkeztu da 2025eko maiatzaren 15etik 25era egingo den Euskaraldia. Antolatzaileek eraldaketa proposatu dute egiteko moduetan, “**Euskaraldia gaindituko duen Euskaraldia**” izan dadin.



Elkar mugituz egingo dugu lelopean, aktibazioan, mugimenduan, emozioetan eta batak bestearengan dugun eraginean jarri dute arreta. Herriek eta **entitateek** dagoeneko eman dezakete izena Euskaraldian; martxoan izango da *ahobizi* eta *belarripresten* txanda.





*Ake ..., *Si ..., *Asike ..., *Eske...

Nola esan, euskaraz, beste hizkuntza batzuetan hain ohikoak diren esapide eta antzekoak?

- **Ake bai** asmatu! → **Baietz** asmatu!
- **Eske** gurekin gustura dabilta. → Gurekin gustura dabilta **eta**.
- Ez dakizu, **asike** isildu. → Ez dakizu, **eta** isildu! Ez dakizu; **beraz**, isildu!
- Jesartzeko? **Si** jesarrita nago! → Jesartzeko? Jesarrita nago **eta**!
- **Aber** noiz egoten garen elkarrekin! → **Ea** noiz egoten garen elkarrekin!

4

‘Miñan’ ezaguna, orain antzerki



Miñan (anaiatxoa) Ibrahima Balderen bizitzaren kronika da, Amets Arzallusek lehen pertsonan kontatua eta Artedramak antzerkira egokitua.

Ibrahima Balde Ginean jaio zen; baina, egun batean, amaren deiak etxea uztera behartu zuen, anaia txikiaren bila Europara joateko. Basamortua zeharkatu zuen, eta polizia, bahitzaile, mugalari eta abarrekin gurutzatu zen zeharkaldian. Afrikatik Europarako ibilbidean minak, egarriak eta goseak sorturiko sufrimendua ezagutu zuen.

Euskal Herriko antzokietan zehar egongo da ikusgai, datozen aste eta hilabeteetan.



Mila esker!

Hurrengo Pilulara arte

Proposamenak, iradokizunak, zalantzak...



i.lizeaga@elhuyar.eus